

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 78/2026 FORU DEKRETUA, abuztuaren 26koa. Honen bidez, oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira 2026ko azaroaren 24tik 2027ko azaroaren 22ra bitartean nazioarteko federazioen eta/edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan sartutako kirol-probetan parte hartzen duten Bizkaiko kirolarientzako foru dirulaguntzetarako.

Euskara, Kultura eta Kiroleko Sailak bere helburuen artean dauzka kirolaren sustapena eta Bizkaiko kirolarien babesa, lehen lerroan lehiatu daitezen.

Zentzu honetan, lan bikoitza egiten du: Lurralde Historikoan kalitatezko kirol jarduerak egin daitezzen sustatzea batetik, eta estatu zein nazioarte mailan emaitzak lortzeko xedearekin lehiatzen diren kirolariak zuzenean laguntzea.

Bigarren esparru honetan kokatzen da deialdia hau. Nazioarteko federazioen edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan sartutako lehiaketetan sartzen laguntzeko, eta kirolariek elitera heltzeko aukera izateko, Bizkaiko Foru Aldundiak partez finantzatuko baititu Bizkaiko kirolariek, 2026ko azaroaren 24tik 2027ko azaroaren 22ra egiten diren kirol proba ofizialetan, bakarka edo bikotean parte hartzeagatik dituzten gastuak. Gastu horiek izango dira izen-ematea, egonaldia, bidaiak eta mantenua.

2011. urtean edo lehenago jaioak izango dira dirulaguntza hauen onuradunak. Salbuespenez onartuko dira 2011ren ondoren jaiotakoak, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak Etorkizun Handiko Kirolari edo Etorkizun Handiko Kirolaritzat jotzeko hautagai legez aintzatetsi baditu. Onuradun izan daitezkeen adinak zehazten dira, beharagoko adinak eskola-kategoriei dagozkielako.

Proposatutako xedapen orokorraren gaiari dagokion eskumena Bizkaiko Foru Aldundiarena da, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoe-tako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikulua arabera, lurralde historikoei baitagokie erakunde erkideek kirolaren sustapenaren arloan emandako arauak garatu eta betearazteko eskumena.

Halaber, Euskadiko jarduera fisikoa eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak, 2.3 artikuluan, adierazten du euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskubidea benetan gauzatzeko politika bat ezarriko dutela, eta, besteak beste, printzipio hauek gidari izango dituela: lehiaketa-kirola antolatzea eta sustatzea eta lehiaketazko euskal kirola Estatuan eta nazioartean babestea.

Zehazki, eskudantzia hori Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari dagokio; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuarekin bat etorritik, sail horri, besteak beste, eginkizun hauek dagozkio:

- Kirola eta kirol espiritua sustatzea, praktikatzeko aukerak eskainiz, eta
- Laguntza ematea kirolerako gaitasun nabarmena agertzen duten kirolariei.

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datxekien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta orokorrean printzipio berak jorratzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea.



Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, dekretu honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala jasotzen ditu, bai prestatzeko orduan bai aplikatzeko orduan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan. Era berean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 14ko 112/2024 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero Eraginaren Atariko Ebaluazioa.
2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari Buruzko txostena.
4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
5. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkezteari haren sailerako gaien buruzko foru dekretuen proiektuak onartzea. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak aztertutik, hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—Foru dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onestea

Oinarri-arauak eta deialdia onartzen dira 2026ko azaroaren 24tik 2027ko azaroaren 22ra bitartean nazioarteko federazioen edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan sartutako kirol-probetan parte hartzen duten Bizkaiko kirolariei Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailak emango dizkien foru dirulaguntzetarako.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa.—Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, foru dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion foru dirulaguntzak ematea.
2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko edo ixteko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia, edo aurrekontu-zuzkidura agortzen edo handitzen denean.



Azken Xedapenetako Bigarrena. — Indarrean jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Bilbon, 2026ko abuztuaren 26an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA



**OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA 2026KO AZAROAREN 24TIK
2027KO AZAROAREN 22RA BITARTEAN NAZIOARTEKO FEDERAZIOEN
ETA/EDO ESPAINIAKO FEDERAZIOEN EGUTEGI OFIZIALETAN
SARTUTAKO KIROL-PROBETAN PARTE HARTZEN DUTEN BIZKAIKO
KIROLARIENTZAKO FORU DIRULAGUNTZETARAKO**

I. TITULUA**XEDAPEN OROKORRAK****1. oinarria. — *Dirulaguntzaren xedea***

1. Bizkaiko kirolariek dirulaguntza jasoko dute beren gain hartu behar izan dituzten inskripzio, egonaldi, joan-etorri eta mantenu gastuengatik, baldin eta 2026ko azaroaren 24tik 2027ko azaroaren 22ra bitartean nazioarteko federazioen eta/edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan sartutako kirol-probetan parte hartzen badute, banakako nahiz binakako norgehiagoketan.

Mantenu- eta egonaldi-gastuen kasuan, lehiaketan parte hartu aurreko egunari, lehiaketan parte hartzen den egunei eta lehiaketan parte hartu eta hurrengo egunari dagozkien gastuak baino ez dira diruz lagunduko.

Era berean, mantenu-gastuen kasuan, eguneko hiru mantenu baino ez dira kontuan hartuko.

2. Diruz lagunduko diren probak Euskadiko Kirol Federazioen urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinean jasotako kirol modalitateen eta diziplinen katalogoa eguneratzeko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko otsailaren 10eko Aginduan halakotzat aitortutako kirol-diziplinei buruzkoak izan beharko dira. Era berean, dirulaguntza jaso ahal izango dute Eusko Jaurlaritzak agindu horren ondoren aitortutako kirol-diziplinen probek, baldin eta proba egin aurretik aitortzen badira.

Hipikako diziplinen kasuan, baldintza hauek betetzen dituzten eskabideak soilik hartuko dira kontuan:

Jauzi-diziplinan: lehiaketa minimoa: 6ko lauhazka, eta gutxieneko altuera: 1,30 metro.

Raid diziplinan: lehiaketa minimoa: izar 1, eta gutxieneko distantzia 80 kilometro.

Lehiaketa osoko diziplinan: lehiaketa minimoa: 7ko lauhazka.

Hezte-diziplinan: lehiaketa minimoa: 4ko lauhazka, eta tarteko mailako proba.

Poni-diziplinan: lehiaketa minimoa: D kategoria, eta gutxieneko altuera 1,1 metro. Promesa edo promesa aurreko aitortzea duten kirolariak bakarrik onartuko dira.

Foru dekretu honen ondorioetarako, nazioarteko kirol probatzat hartuko dira modalitateko nazioarteko federazioaren egutegi ofizialean halakotzat ageri direnak. Surf modalitatean, WSLk antolatutakoak ere nazioarteko kirol-probatzat hartuko dira.

Probak izan behar dira ume, kadete, gazte, junior, absolutu edo kategoria seniorrekoak.

3. Foru dekretu honen aplikazio eremutik kanpo geldituko dira beteranoen, masterren edo antzekoen probetara joateak sortutako gastuak, bai eta eskola kiroleko edo federatuak ez diren lehiaketetakoak eta Estatukoa baino eremu txikiagoko lehiaketetakoak ere.

4. Ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dirulaguntzaren zioa den kirol probarekin loturik ez daudenak.

5. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Era berean, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikularekin bat etorrira, beren-beregi kanpo utzitakoak.

6. Foru dekretu honen helburua eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz finantzatzeko jardura egiteagatik sortutako gastu guztiak.



7. Ez da inolaz ere diruz lagunduko edozein motatako diskriminazioa eragiten duen jarduerarik edo proiekturik, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko indarreko araudian ezarritakoaren arabera.

2. oinarria. — Onuradunak.

1. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean egon ez eta baldintza hauek betetzen dituzten kirolariak izan daitezke foru dekretu honen bidez araututako dirulaguntzen onuradunak:

- a) Etenik gabe 2026ko urtarrilaren 1etik Bizkaian erroldaturik daudenak.
- b) 2026ko azaroaren 24tik 2027ko azaroaren 22ra bitartean nazioarteko federazioen edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan sartutako kirol-probetan parte hartzea.
- c) 2011. urtean edo lehenago jaioak. Salbuespenez onartuak izango dira 2011ren ondoren jaioetakoak, Bizkaiko Foru Aldundiak Etorkizun Handiko Kirolari edo Etorkizun Handiko Kirolaritzat jotzeko hautagai legezt aintzatetsi baditu.
- d) Bizkaiko lurraldeko kirol-federazioak edo, Bizkaiko lurralde-federaziorik ez bada, euskal federazioak izapidetutako lizentzia izatea, dirulaguntza eskatzen den modalitatekoa. Lizentziak 2026. edo 2027. urterako egon beharko du indarrean, edo 2026/2027ko edo 2027/2028ko denboraldirako.

Diruz lagundutako probetan inongo klubekin loturarik ez duten lizentziekin parte hartzeko aukera ematen duten modalitateen kasuan, dagokion euskal federazioak emandako lizentzia.

2. Ezin izango dute diru-laguntzarik jaso honako pertsona fisikoak:

- a) Sexuarengatik edonolako diskriminaziorik sortzeagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo, laboral edo penalen bat jaso dutenak, zehapenean ezarritako epean zehar.
- b) LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako pertsonak diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso dutenak, zehapenean ezarritako epean zehar.

II. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

3. oinarria. — Araudi aplikagarria

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikokoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

4. oinarria. — Arau-hausteak eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan xedatutakoa ere.



III. TITULUA

PROZEDURA

5. oinarria. — Eskabideak aurkezteko lekua eta epea

1. Dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu beharko dira (Recalde zumarkalea 30, 1. solairua, Bilbo), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan.

Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkezteko:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru dekretu honen laburpen-fitxa.

2. Adingabeen eskabideak legezko ordezkariak aurkeztu beharko ditu. Edonola ere, adingabeak bete behar ditu foru dekretu honetako 2. oinarrian ezarritako baldintzak, eta bera izango da, bere kasuan, onuraduna.

3. Eskatzaile bakoitzak dirulaguntzarako proba bakoitzeko eskabide bat aurkeztu behar du, bera egin eta gero.

4. Eskabideak aurkezteko epea 2026ko abenduaren 16an hasi eta 2027ko abenduaren 1ean amaituko da (egun hori barne).

6. oinarria. — Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak

1. Eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuz gero, egoitzan egongo dira eskuragarri eskabidearen eredu ofizialak, bete eta aurkeztu ahal izateko, 39/2015 Legearen 66.6. artikuluan ezarritakoarekin bat:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Gainerako kasuetan, dirulaguntza eskabideak egoitza elektronikoan eskuragarri dauden I eta II inprimakien bidez aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta.

2. Kasu bietan, eskabideekin batera hurrengo apartatuetan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Interesdunak edo eskatzailearen ordezkariak sinatu beharko du eskabidea:

- a) 2.1.d) oinarrian aurreikusitako Kirolariaren federazio-lizentzia.
- b) Kirol probaren deskripzio-fitxa. II. Inprimakia.
- c) Hau egiaztatzen duen agiria: proba nazioarteko edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan sartuta dagoela, interesdunak bertan parte hartu duela, proba zein posiziotan amaitu duen, zer egunetan egin den proba eta zenbat parte-hartzaile izan diren.
- d) Hala badagokio, nazioarteko lehiaketan parte hartzeko alde zuzeneko sailkapen-probetan parte hartu behar izan duela justifikatzen duen agiria aurkeztu beharko du.
- e) Dirulaguntzaren eskaeraren xede den proban parte hartzeko inskripzioan, egonaldian, joan-etorrietan eta mantenuan egindako gastua egiaztatzen duten ordainketen egiaztagiriak edo kopiak.
Aurkeztutako egiaztagirien eta fakturen zerrenda aurkeztuko da, eta kirolaria ez den beste pertsona bati dagozkion gastuak egozten badira, horiei dagokien zatia adierazi beharko da.
Aurkeztutako zerrenda ez badator bat aurkeztutako egiaztagiriekin eta fakturekin, eskabidean aurkeztutako egiaztagiriak eta fakturak baliozkotzat joko dira, dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko.
- g) Legezko edo borondatezko ordezkariak zuzenbidean baliozkoa den edozein bi-tartekoren bidez egiaztatu beharko da.

**7. oinarria. — Dokumentazio egiaztagarria**

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodua erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kirol Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek interesdunei buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administrazioarako beharrezkoak direnean, salbu eta berariaz aurka egiten badiote. Kontra egonez gero, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek hauek dira:

- a) Banku kontuaren titulartasun datuak.
Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.
- b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- d) Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako batean erroldaturik dagoela adierazten duen ziurtagiri historikoa.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kirol Zerbitzuak izapideak egiteko behar dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere bat etorritz.

8. oinarria. — Eskabideak zuzentzea eta hobetzea

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agiriren bat aurkeztu ez bada, orduan erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epean hutsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.

2. Edonola ere, Kirol Zerbitzuak aurkeztzen diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

9. oinarria. — Dirulaguntzak emateko araubidea

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru-araua 20. artikuluan 1. zenbakiaren bat, dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka araubidearen arabera izapidetuko da.

Edonola ere, arau horretan hau ezartzen da: salbuespen modura, dirulaguntzaren helburu edo izaeragatik ezinezkoa bada prozedura norgehiagokaren bitartez izapidetzea, norgehiagokarik gabekoa izango da dirulaguntzak emateko prozedura, eta, beraz, eskabideak jaso ahala banatuko dira funtsak —betiere eskabideok deialdian ezarrita dauden betekizunak betetzen badituzte— harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

Eskabideak ebazteko, lehentasun-ordena bat ezarriko da dirulaguntzaren eskabidea aurkeztu den dataren arabera. Hala ere, zuzenketa-errekerimendua egin den espedienteetan, erantzun-data hartuko da erreferentziazat, edo, bestela, zuzentzeko emandako epearen mugaeguna.

Kontuan hartuta dekretuaren xedea dela etorkizun oparoa izan dezaketen kirolariei goi-mailako kirolean parte hartzeko laguntza ematea, foru dekretu honi dagozkion di-



rudlaguntzak lehia askearen bidez emango dira, era askotako kirol-probak direnez ezin direlako lehiari alderatu, dekretuaren xedea hutsaldu egingo bailitzateke.

Dirulaguntza emateko, espedientean egiaztatuta geratu beharko da interesdunak onuradun izateko betekizunak betetzen dituela, bai eta jarduera dirulaguntza jaso deza- ketenen artean dagoela ere. Aurreko hori egiaztatu ondoren, dirulaguntza emango da, eskura dauden aurrekontuko diru-baliabideen arabera eta 10. oinarrian ezartzen diren mugen barruan.

10. oinarria. — *Dirulaguntzak emateko irizpideak*

1. Proba baloratzeko, puntu honetan ageri diren portzentaje hauek aplikatuko zaiz- kio eskabidean jasotako eta diruz lagun daitezkeen gastuei:

a) Finantzazio-ehuneko oinarritzko bat, kirolariaren mailaren arabera:

Ondorio horietarako, hau da «kirol talentua»: kirolari bat, zeina (Eusko Jaurlari- tzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko jarduketa-protokoloarekin ados) Al- dundiko eta Eusko Jaurlaritzako teknikarien batzorde mistoak «kirolerako talen- tu» gisa identifikatu baitu, etorkizun handiko kirolariaren artean, kirol-lehiaketetan goi-maila lortzetik oso hurbil dagoelako.

Bestalde, promes-kirolaria edo aurrepromesa, hau da, «etorkizun handiko kirola- ria» edo «etorkizun handiko kirolaritzat jotzeko hautagaia» izango da kalifikazio hori duten kirolariaren zerrendan dagoena, Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak eta etorkizun handiko kirolaritzat jotzeko hautagaiak identifikatzeko eta haiei la- guntzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretuarekin bat.

b) Lehiaketaren eremuari esleitutako ehunekoa, estatukoak eta nazioartekoak be- reizita.

c) Parte hartu den kategorian lehiaketa amaitzeari esleitutako ehunekoa ondoen sailkatutakoen %10en artean, estatuko eta nazioarteko lehiaketetan lortutako emaitzak bereizita.

d) Emakume kirolariaren ehunekoa.

e) Kirol egokituko probetako parte-hartzaileen ehunekoa.

f) Bertoko euskal kiroleraren parte hartzen duten kirolariaren ehunekoa.

g) Nazioarteko lehiaketen kasuan, aurretiazko sailkapen-probetan parte hartu behar izan duten kirolariaren ehunekoa.

Aipatutako ehunekoak, ondoren datozenak, metagarriak dira:

Irizpideak Kirolariaren maila Criterios Nivel deportista	Oinarritzko finantzaketa- % % financiación básica	Lehiaketaren esparrua Ámbito de la compe- tición	Lehiaketa lehenengo % 10en artean amaitzea Finalizar la competición entre el 10% de los y las mejor clasificados	Emakumea Mujer	Kirol egokitua Deporte adaptado	Bertoko euskal kirola Deporte Autóctono vasco	Aurretiazko sailkapen proba Prueba clasificato- ria previa	Diruz lagun daitezkeen maximoak Máximos sub- vencionables
Talentuak Talentos	45%	Estatu 5%, interna- cional 10%,	Estatu 5%, internacio- nal 10%,	10%	10%	5%	15%	95%
Etorkizun handiko kirolariak Promesa	40%	Estatu 5%, interna- cional 10%,	Estatu 5%, internacio- nal 10%,	10%	10%	5%	15%	90%
Etorkizun handiko kirolari- tzat jotzeko hautagaiak Pre-promesas	30%	Estatu 5%, interna- cional 10%,	Estatu 5%, internacio- nal 10%,	10%	10%	5%	15%	80%
Beste batzuk Otros	25%	Estatu 5%, interna- cional 10%,	Estatu 5%, internacio- nal 10%,	10%	10%	5%	15%	75%

2. Inola ere ez da emango eskatutakoa baino dirulaguntza handiagorik, ezta bi mila euro (2.000 euro) baino handiagoa ere proba bakoitzeko, ezta diruz lagun daitezkeen gehieneko ehunekoa baino handiagoa ere.

Nolanahi ere, kirolari bakoitzak jasotako dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da hamar mila euro (10.000 euro) baino gehiago izan.



3. Mantenu eta autoz egindako joan etorrien kilometro gastuen kasuan eskabidean aurkeztutako fakturak hartuko dira kontuan. Edonola ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onetsi duen apirilaren 8ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 47/2014 Foru Dekretuaren 13.A artikulua ezarritakoa kontuan hartuz, hurrengo gehiengoak ezarzen dira:

- Kilometroen kasuan, 0,29 euro zenbatuko da egindako kilometro bakoitzeko.
- Mantenu gastuen kasuan, 53,34 euro egunean, bidaia Espainiako lurraldearen barruan egin bada, edo 91,35 euro egunean, bidaia atzerrira egin bada.

Eskaeran kilometro-ordain bakarria eskatu ahal izango da.

4. Proposatutako azken dirulaguntza kopuruak beherantz borobilduko dira, zentimoak kenduta.

11. oinarria. — Aholkularitza

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu foru dekretu hau dela-eta sortutako zailtza edo kontsulta guztiak argitzeko, web orri honen bidez:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKirolak>

12. oinarria. — Ebazpena

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4 artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena emango eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Eskera ebatzi baino lehen, Kirol Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta. Aurreko guztia egiaztatu ondoren ikusten bada eskatzailearen batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, behin ebazpena emanda.

3. Eskabideak ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetez (3) izango da, eskabide bakoitza aurkeztu den egunetik aurrera, eta inoiz ez 2027ko otsailaren 3a baino lehenago.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak emango du ebazpena, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren txostena jaso ondoren.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, ebazpen adierazia geroago ere eman ahal izango da.

4. Eskabidea ebazten duen foru aginduaren jakinarazpena posta ziurtatu bidez bidaliko zaie interesdunei, salbu eta eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu dutenei, zeinei egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez jakinaraziko baitzaie.

Foru agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak errekurtsio hauek jar ditzakeela: foru aginduaren aurkako aukerako berraztertze-errekurtsioa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu andre txit argiaren aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, bi hilabeteko (2) epean; epeok jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen epeok.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, urtero, iragarki bat jarriko du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, deialdi publiko honetan onetsi diren eskabideen berri emateko.

**13. oinarria. — Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.**

1. Foru dekretu honetako dirulaguntzak bateratu ahal izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

2. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretako bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo entitate publiko batek emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat eginda, inolaz ere ezin baita izan pertsona onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Deialdi honen xede diren laguntzei dagokionez, ez daude Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan aurreikusitako estatu-laguntzen araudiaren mende, pertsona fisikoei zuzenduta daudelako kirol-lehiaketetan parte hartzeko eta ez direlako enpresentzako edo jarduera ekonomikoetarako laguntzak.

IV. TITULUA**DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA****14. oinarria. — Dirulaguntza ordaintzea**

1. Deialdi hau ebazten duen foru agindua jakinarazi eta handik hamar egun baliodunera onuradunak ez badio berariaz eta idatziz eskaerari uko egiten, ulertuko da onuradunak onartu egin duela, eta Kirol Zerbitzuak dirulaguntzaren zenbatekoaren ordainketa izapidetzen hasiko da, Ogasun eta Finantzen Foru Sailean; horretarako, onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko.

2. Dirulaguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko du. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek ez duela betetzen betebeharrak horietako edozein, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, horrela egiten ez badu, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

Onuradunen batek edo batzuek emandako dirulaguntzari uko egiten badiote, uko-egite horrek ez du inola ere ekarriko deialdi honen ebazpenean jasotako baldintzak aldatzea.

15. oinarria. — Hartzailearen ekimenez egindako itzulketa.

1. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten da, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntza, foru erakundeak aurretik eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Onuradunak eskatuta dirulaguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Kirol Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutun horretan honako hauek adierazi beharko dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den dirulaguntzaren aipamena eginez.

3. Dirulaguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuari.

**16. oinarria. — Justifikazioa egiteko epea eta era.**

Foru dekretu honen bitartez arautzen diren dirulaguntzen onurak jasotzen dituzten pertsonen dirulaguntza ematea eragin duen jarduera gauzatu eta egiaztatu behar dute, eskabideak aurkeztu baino lehen.

Hori dela bide, eman den dirulaguntzaren zenbatekoaren gastuaren erabilera justifikatzea eta jarduera gauzatu dela frogatzea, baita dirulaguntza ematea edo hartaz gozatzea ekarri duten betebeharrak eta baldintzak bete direla ere, ez da gauzatu beharko dokumentu gehigarriak aurkeztuz, justifikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuaren esku egongo baitira dirulaguntza hau esleitu baino lehen.

17. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrak.

- a) Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea Kirol Zerbitzuari.
- b) Diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipen egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak erraztu beharko ditu.
- c) Udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo ente publiko batek xede bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren berri ematea Kirol Zerbitzuari.
- d) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta diruz lagundutako jardueraren eremuari buruzko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- e) Dirulaguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa jaso dela agerrarazi beharko da; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudian ezarritako elementuak baliatuko dira, nahitaez.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak erabiltzea dirulaguntzaren xede den jardueraren publizitatean eta zabalkundean, bai euskarri grafikoan bai ikus-entzunezko komunikabideetan (era guztietako iragarkiak, kartelak, liburuxkak...).
- g) Onuraduna era berean konprometitzen da euskara erabiltzera diruz lagundutako jarduerarekin lotutako jendaurreko agerpen guztietan.
- h) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jarduerak onartzea.
- i) Era berean, onuraduna —diruz lagundutako proiektua gauzatzean— behartuta egongo da Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3. artikuluan aurreikusitako printzipio orokorrak betetzera, bereziki behartuta egongo da hizkuntza ez sexista ez erabiltzera hizkerta mota guztietan (dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan, eta abar), edozein euskarritan, idatzizkoetan zein digitaletan.
- j) Bizkaiko Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamenduan aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada itzuli beharko dira:

18. oinarria. — Itzulketa

1. Zenbait kasutan itzuli egin beharko dira jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak. Hain zuzen ere, hala egin beharko da baldin eta ez badira betetzen dekretu honetan edo Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamenduan aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada itzuli beharko dira:

- a) Dirulaguntza lortzeko, bete beharreko baldintzak faltsutu edo laguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkututzen direnean.



- b) Xedea, jarduera, proiektua edo dirulaguntza emateko funtsa den jokaera oso-osorik edo zati batean betetzen ez denean.
 - c) Ezarritako kontrol-jarduerak egiten ez uztea, edo horretarako oztopoak jartzea.
 - d) Foru dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak ez betetzea.
2. Dirulaguntza jaso duen jardueraren kostua baino finantzaketa gehiago jasotzen bada, dirulaguntza itzuli beharko da.
3. Dirua itzultzeko prozedura izapidetzeko, dirulaguntzak arautzen dituen araudi aplikagarrian xedatutakoa beteko da.

19. oinarria. — *Datu pertsonalen babesa*

Aplikatu beharrekoa izango da Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordez aplikatu beharreko gainerako araudia.

20. oinarria. — *Aurrekontuko partida*

1. Deialdi honetan araututako dirulaguntzak emateko aurrekontuaren muga ehun eta hirurogeita hamabost mila eurokoa (175.000,00 euro) da; G/0403/341109/46999_2017/0017 aurrekontuko partidaren kargura emango dira, eta honela banatuko da aurrekontua urtez urte:
- 2026. urtekoa: 0,00 euro.
 - 2027. urtekoa: 175.000,00 euro.
2. Deialdi honen gehieneko zenbateko osoa zenbatetsia da, haren babesean aurrez daitezkeen eskaeren aurreikuspen bati erantzuten baitio, aurreko ekitaldietako erreferentziazat hartuta; horregatik, 34/2010 Foru Dekretuaren 41.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, aurrekontu-kredituak aldatu ahal izango dira Gobernu Kontseiluak onartutako foru dekretu baten bidez eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, aurreikusitako eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, eta eskaerak aurkezteko epea luzatu beharko da.
3. Deialdiko eskaera guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa bada, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko da, sobera den zenbatekoan.